

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2025eko martxoak 14 · 1347 zenbakia

ATEA IREKIZ EZTANDA EGITEKO



T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babeatu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
babeatuta egongo
den **garantia**



IZEN-EMATEA ZABALIK



EUSKARAREN SOZIALIZAZIOA ETA TRANSMISIOA

MINTEGIA

● Martxoak 25, asteartea
● SD Eibar-eko prentsa aretoan

- 08:45** Materiala jaso.
08:55 Ongietorria eta agurra.
09:10 **"Jendaurrean.eus erakundeek euskaraz komunikatzeko gida"**. Asier Basurto Arruti, Soziolinguistika Klusterra.
10:00 **"Euskararen aukerak eta erronkak adimen artifizialaren garaian"**. Aitzol Astigarraga Pagoaga, Orai NLP zentroko koordinatzailea.
10:50 **"Giza baliabideen kudeaketa euskararen normalizazioaren sektorean: talentoaren atxikipena eta pertsonen motibazioa"**. Arrate Illaro Etxeberria, Hizkuntza normalkuntzako teknikaria.
11:40 ATSEDENALDIA (ARGAZKIA ETA GOSARIA).
12:20 Kirolean eta kulturaren, zer?
12:25 **"Euskararen ibilbidea SD Eibar-en"**. SD Eibarko ordezkariak.
12:50 **"Urak eginen du bide"**. Alex Aginagalde Lopez, Pantailak Euskaraz-eko bozeramailea.
13:40 Hausnarketa-dinamika.
13:55 Amaiera eta agurra.

eta kitto!
euskara elkarte



BESTE MODURA

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, kontserbak,
ardoa, arropa, pasta eta lekaleak euskaraz
etiketatuta eta jatorrizko prezioan

DENONA DA ONURA

Martxoak 10-26 / errigora.eus


errigora

EGIN ESKAERA! >>



Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Hilabete biziak izan dira Jon Alonsorentzat. ETB-ko Ztanda saioan aritu eta Oihane Zabalarekin eta Garazi Aizpuruarekin ODE taldea sortu ondoren, bakarkako ibilbideari hasiera emango dion ikuskizuna dihardu prestatzen apirilaren 4rako: Atea Irekiz.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Maitane Campos

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



(*...eta kitto!k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Hortik esanak

Deporreko mendeurrenaren publikazioa egoitzan bertan jaso dezakezue

Abenduan kaleratutako Eibarko Klub Deportiboko Kezka aldizkari berezia klubaren egoitzan jaso daiteke, Toribio Etxebarria kaleko 16. zenbakiko lehenengo solairuan. Bazkideak bertatik pasatu daitezke martitzenetik barixakura, 18:00etatik 20:30erako ordutegian. Publikazioak hartutako bolumenak ia ezinezkoa egiten du buzoietan banatzea, gutxi batzuetan kenduta ez delako kabitzen. Horregatik uste dugu Deporren bertan jasotzea izan daitekeela publikazioa bazkideoi heltzeko modurik erosoena. Ulertuko diguzuelakoan, barkatu eragozpenak.

Eibarko Klub Deportiboa

Gero eta jende gehiago ikusten dut bakarrik oporrak, jardun-murrizketa, eszedentzia edo lan-utzialdiak, aurretiko jubilazioak, astebururako falta diren egunak eta “bizitza bizitzeak” ahotan darabiltenak. Lanarekin izan beharko genukeen konpromisoaren falta erakustez gain, hori horrela adierazteko beharko genukeen lotsa apur hori galtzen ari gara; eta eskubide batzuen (eskubideak izan ez arren) erreibindikazioa lizunetik oso gertu dago. Bizitzak ez du zertan sakrifizio hutsa izan, hori egia da, baina zerbitzu publikoarekiko bokazioa ezin dugu galdu, batez ere zure lanaren hartzaile edo jasotzailea pertsonak direnean. Zer esanik ez Justizia, Ertzaintza, Osakidetza edo hezkuntza publikoko langilea izanda, harro egoteko motiborik ez baitago arlo horietan.

LARRAITZ UGARTE, abokatua

Bilboko Alondegian La Caixari areto bat eman diote. Kudeatzaileei esaten zieten erakusketa errazagoak antolatu behar zituztela jendeak ez zituelako ulertzen. Pentsamendu oso simpleko lanak ikusten bukatuko dugu. Botereak hori nahi du, pentsa dezagun ahalik eta sakontasun gutxienarekin, izan dadila dena su artifizialak. Giharra oso azkar galtzen ari gara. Bankuek antolatutako erakusketak bakarrik izango ditugu. Edo Guggenheim-ak. Jaurlaritzari inporta zaion gauza bakarra turistak erakartzea da.

MIKEL AYLLON, Piszifaktoria Ideien Laborategia

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PESKA → Arrantza, baina erreka. “Peskara Saturixora juaten giñan gehixen”.

PETO-PETO → Pertsona biren arteko kidesun edo antzekotasun handia adierazteko erabiltzen da. “Bere aita peto-petua dozu seme hori”.

Benetakoa, tipikoa. “Gatzizenez Biriarrua zan bat, mutilzahar peto-petua zana. Haren bildur guztiak, ezkontzeko arriskuanak ziran”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 14
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 17
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 18
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 19
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 20
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
BARIXAKUA 21
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Manuel Hilario Ravelo Gonzalez.**
94 urte. 2025-03-05.
- **Pedro Maria Markaide Astigarraga.**
81 urte. 2025-03-07.
- **Jose Neira Garcia.**
90 urte. 2025-03-11.

M8 Emakumearen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8a zapatuan egokitu zela aprobetxatuz, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldiz beteta egon zen eguna. Neledantza Eibarko Udal Dantza Eskolaren eskutik, goizetik eguerdira bitartean Zumbatoi Morea egin zen Errebelen, eta parte-hartzaileak primeran ibili ziren, Dantza Eskolako irakasleek gidatuta. Bestetik, Matraka talde feministak, *Antifaxismoa feminista izango da, edo ez da izango* goiburuekin bat eginez, egun osorako plana prestatu zuen, baina ekitaldi nagusia arratsaldeko manifestazioa izan zen. Eguraldiak ez zuen lagundu, baina, hala ere, euriak ez zuen mobilizazioa oztopatu, eta ehundaka herritarrek zeharkatu zituzten kaleak, manifestazio jendetsuan.

ARGAZKIAK: NELEDANTZA ESKOLA ETA MATRAKA.





Terrorismoaren biktimak gogoratzeko Europako Egunarekin bat eginez

Martxoaren 11a izaten da Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Europako Eguna, orain hogeitabat urte Madrilen 193 hildako eragin zituzten atentatuak gogoan, eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak (FEMP) egindako deiarekin bat egin zuen Eibarko Udalak martitzenean, Untzagan minutu bateko isilunea gordeta, “atentatuen biktimekiko eta haien familiekiko oroitzapen solidarioaren erakusgarri”.



Udal kirolguneetako atezainek greba amaierako akordioa lortu dute

ELA sindikatutik jakinarazi dutenez, 45 eguneko greba eta gero, Unbe eta Ipuruako kirolguneetako atezainek akordioa sinatu dute aste honetan: “Akordio horrek aldarrikapen ia guztiak jasotzen ditu. Besteak beste, 8 langileek lanean jarraituko dutela bermatu dute, eta lana eta bizitza bateragarri egingo duen egutegia adostu dute 2025erako, baita datozenean urteetarako ere. Gainera, Udalak ezingo du akordio hau aldebakarriz aldatu, langileen gehiengoak esaten duena errespetatu beharko

dute beti”. Bestalde, Udaleko beste atezainekiko soldatetan daukaten aldearekin amaitzeko, epaitegietan borrokatzen jarraituko dute. Langileek eskerrak eman nahi dizkiete “borroka luze honetan” bidelagun izan dituzten guztiei.

Jon Iraola alkatea pozik azaldu da: “Urrats garrantzitsua da langileen lan-egonkortasuna zein udal kirol-instalazioen martxa egokia bermatzeko. Elkarrizketa-prozesu gogorra izan da, baina alde guzti-tzat mesedegarria den adostasuna lortu dugu azkenean”.

NOLA SORTZEN DITUGUN HONDAKINAK MURRIZTEN?
LAGUNDU DEZAKEGU

KONPONDUZ BERRERABILIZ, BIRZIKLATUZ ETA BERRASMATUZ!

“BERRERABILIZ ETA BERRASMATU” TAILERRAK 2025. URTEARRIA

lizena emateko epea: martxoak 17 – martxoak 27

Adinez nagusiak. Gehienez 5 tailer pertsonako.
Pegora edo <https://formularioak.eibar.eus/eu/berrerabilizetaberrasmatu2025-01>

Onartuen zerrenda argitaratzeko eguna: martxoak 31

Onartuak matrikula formalizatuzeko epea: apirilak 1 – apirilak 15

-Matrikula-inprimakia udalaren webgunean eskuragarri

-Matrikula Pegorako postontzian utzi (egunero, 7:50 – 21:30)

KATALOGOEA:

	Eibaren irribilak:	Errildatuta ez daudenak:
• ETEKOKO OINARRIZKO KONPONKETAK: ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA: apirilak 29; maiatzak 6, 13, 20 eta 27; ekainak 3 / 17:30 – 19:30		
• TETRABRIKEKIN JOLASTEN; POLTSAK ETA DIRU-ZORROAK; maiatzak 8 / 18:30 - 20:30	8 €	16 €
• BIZIBERRITU ZURE ALTZARI ETA DEKORAZIO OBJEKTUAK; maiatzak 10 eta 17 / 10:30 – 13:30	8 €	16 €
• IKASI ZURE ORDENAGAILUKO HARDWAREA EGUNERATZEN ETA KONPONKETA TXIKIAK EGITEN: maiatzak 14, 21 eta 28; ekainak 4 / 17:30 – 19:30		11 €
• IKASI ZURE BIZIKLETA KONPONTZEN: maiatzak 15 / 18:00 – 20:00		8 €
• BERRERABILIZ ZURE ONTZIAK ETA BERRASMATU ZURE GAIBIKETA-PRODUKTUAK; maiatzak 22 / 18:00 – 20:00		5 €
• BERRASMATU ETA DEKORATU LORE-LANAK; maiatzak 24 / 11:30 – 13:00		8 €
• QUILLING KOADRO ORIGINAL BAT SORTU; maiatzak 30 / 17:30 – 19:30		8 €
• APROBETXAMENDUKO SUKALDARITZA: UDABERRIKO ERKEZETAK; ekainak 5 / 17:30 – 20:30		9 €



Urtebeteko borrokaren ostean, Merkal dendako beharginak akordioa lortu dute

Merkal Calzados Gipuzkoako langileek enpresarekin akordio batera iristea lortu dute, urtebete inguruko lan gatazkaren ondoren. ELAtik azaldu dutenez, “lortutako akordioak langileen eskaera nagusiak jasotzen ditu, hau da, lan egutegia eta oporrak hobetzea”. Sindikatutik nabarmendu dutenez, egoera latza izan arren,

grebalariek ez dute atzera egin: “Izan ere, zortzi dendetatik lau itxita mantendu dituzte grebak iraun duen bitartean (Eibarkoa tartean), eta beste bi denda baka- rrik lanaldi erdian zabaldu dira. Egoera hori funtsezkoa izan da enpresako zuzendaritza langileen aldarrikapenak negoziatzera bultzatzeko”.

Eibarrek Landaola Saria irabazi dezake 'Basarrixa Hurretik' egitasmoarengatik

Landaola Sarien 8. edizioan, erakunde publikoen kategorian, Eibarko Udala saria irabazi dezaketen hautagaien artean dago, beste udalerrri batzuekin lehian (Oiarzun, Oñati, Legazpia, Berastegi eta Azkoitiarekin). Izendapenarekin *Basarrixa Hurretik* programaren bidez landa-garapenarekin Udalak duen konpromisoa aitortu nahi izan dute. Izan ere, ekimenak Eibarko ikasleei lehen sektorerako gerturatze-ko aukera eskaintzen die, tailer eta ibilbide didaktikoen bidez: “LHko

eta DBHko ikasleek baserritarrendik zuzenean ikasteko aukera dute. Bisitak curriculumarekin lotuta daude, natura, gizarte zientziak, biologia eta geografia barne hartuz. 2023-2024 edizioan, 19 bisita egin dira, eta 400 ikaslek hartu dute parte, baserriko jardueren ezagutza sustatuz”. Sariak antolatzen dituen Landaola Federazioak Gipuzkoako Landa Garapeneko sei elkarteak biltzen ditu: Behemendi, Deba-Garaia, Debemen, Goimen, Tolomendi eta Urkome.

Armeria Eskola Elkartek martxoaren 28an egingo du Urteko Batzarra

Martxoaren 28an egingo dute Armeria Eskola Elkartearen Urteko Batzarra, Armeria Eskolako instalazioetan, eta arduradunen berbetan “aukera bikaina izango da networkingerako eta gure komunitatea indartzeko”. Ekitaldiak hiru zati nagusi izango ditu: Armeria Eskolara bisita gidatua, Imanol Urreisti zuzendariaren esku- tik; Batzar Nagusia eta intsignien banaketa (1975eko promozioko kideei); eta Ongizate emozionalari buruzko mahai-ingurua eta hitzaldia. Jardunaldiari amaiera emateko, Eider Mendoza Gipuzkoako Diputatu Nagusia izango da bertan, eta networking-a egiteko tartea ere egongo da. Izena emateko elkarte@armeriaeskola.eus helbidera mezua idatzi daiteke, edo telefonoz deitu (943203244 / 633909388).



Alzheimerri buruzko hitzaldia Beheko Tokian

Eguenean (martxoak 20) “Convivir con el Alzheimer” izeneko hitzaldia emango dute AFAGI elkarte-ko adituek, 17:00etatik aurrera Beheko Tokia nagusien zentroan. Sarrera libre da, interesa duten guztientzat.



'Berrerabili eta Berrasmatu' tailerren udaberriko eskaintza

Aurreko edizioek izan duten arrakasta ikusita, Udaleko Ingurumen Sailak 'Berrerabili eta Berrasmatu' izeneko tailerren beste edizio bat antolatu du. Tailerrak herriko denekin lankidetzan (Eskusutxo, El Taller de Manualidades, Baratze, Adarabar eta Kids&Party), eta beste entitate batzuen laguntzarekin antolatu dira (Oinarritzko Lanbide Heziketako Udal Institutua, Klub Deportiboa eta Koly Asociación

Solidaria). Jarduerak toki horietan egingo dira.

Aurrematrikulak astelehenetik aurrera egin daitezke

Udaberriko edizioan bederatzi tailer eskainiko dituzte, apiriletik ekainera, eta beste horrenbeste emango dituzte udazkenean. Aurrematrikulak astelehenetik aurrera egin ahalko dira, martxoaren 27ra arte. Aurreinskripzioa Pego-

ran egin beharko da edo, bestela, Internet bidez, Udaleko webgunean eskuragarri dagoen formularioa beteta. Tailerrak adinez nagusientzat direnentzat dira, eta pertsona bakoitzak gehienez hiru tailerretan eman ahalko du izena. Edozein modutan ere, tailerren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, interesdunek ingurumena@eibar.eus helbide elektronikora idatzi dezakete edo, bestela, 943708408 telefonora deitu. Eta tailerren katalogo osoa udal webgunetik deskargatu daiteke ("Ikastaroak, lehiaketak eta tailerrak" izeneko atalean).

Hasi da Errigoraren 'Eskutik Eskura' Nafarroako produktuak saltzeko kanpaina

Martxoaren 26ra arte izango dugu Errigoraren produktuak eskatzeko aukera, Errigoraren bi kanpaina nagusietako bat den "*Eskutik Eskura*" izeneko martxan da-eta. *Beste modura denona da ardura* da aurtengo goiburua eta produktu hauek erosi daitezke: oliba-olio birjina estra, ardoak eta arroz-, pasta-, lekale- eta kontserba-sor-

tak. Eskaerak www.errigora.eus webgunean egin behar dira, baina Eibarren jasoko da erosita-koa (maiatzaren 6an, 17:00etatik 20:00etara, Untzaga zine zaharrean). Bestalde, **...eta kitto!-k produktuz betetako bi saski zozketatuko ditu** www.etakitto.eus-en dagoen formularioa betetzen dutenen artean.



Euskal emakume pentsionisten egoera ezagutzeko aukera

Martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekintzek aurrera egiten jarraitzen dute eta hilaren 18an, martitzena, 18:00etan, Oneka euskal emakume pentsionisten elkarteak ezagutzeko aukera izango dugu Andretxean. Bertan, plataformako kideek elkartearen zergatik eta nola sortu zuten azalduko dute, emakume pentsionisten egoera jakitera emanez. Jarduera irekia izango da eta euskaraz egingo dute.



ONEKA-ren
webgunea



Oneka euskal emakume pentsionisten elkarteak 2018ko urriaren 17an ikusi zuen argia, Pobreziaren Aurkako Egunean hain zuzen ere. Emakume guztientzat pentsio duinak eskuratzeko da bere helburu nagusia, Europako Gutun Sozialaren irizpidea jarraituz, baina badituzte beste zenbait xede ere: emakume nagusiek indarkeriarik gabeko bizitza autonomoa izateko aukera bermatzea, gizonen eta emakumeen pentsioen arteko arrakala ezabatzea eta kotizatu gabeko bizi osoko lanaren ondorengo “eskubiderik gabeko zahartzaroa” amaitzea, besteak beste.

Datuen arabera, 2023an Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 6.000 lagunek zuten kotizazio gabeko pentsioa, hau da, 484,6 euroko diru-sarrerak 14 ordainsaritan. Horietatik 4.024 emakumeak ziren, hau da, kotizazio gabeko

pentsioak zituzten hiru lagunetik bi emakumeak ziren, eta horien artean 1.055 ziren 80 urtetik gorakoak. 2024ko azaroan, kotizazio gabeko pentsioa duten pertsonak 7.859ra igo dira, eta hilean 518 € jasotzen dituzte 14 ordainsaritan. Aurreko proportzioaren arabera, horietatik 5.300 inguru emakumeak izango lirarteke. Pentsio baxuena duten emakumeak dira eta nekez iritsi daitezke hilabete amaierara.

Onekak pentsio-sistema bidezkoago eta parekideago bat diseinatzeko aldarrikapena egiten du, baina baditu beste proposamen batzuk ere: babes eta segurtasun sozialeko sistema kudeatu eta bideratuko duen organo bat sortzea, emakume nagusientzako neurri sozial eta politiko espezifikoak ezartzea eta zaintza-lanak aintzat hartzea pentsio-eskubideak kalkulatzeko.



2018az geroztik jo eta ke lanean dihardu Oneka euskal emakume pentsionisten elkarteak.

Azken gai horri helduta, Onekak euskarri integral gisa ulertzen du zaintza, ez euskarri fisiko soil gisa (hau da, elikagaia, higiena eta mugikortasuna jasotzea). “Zoritxarrez, adinekoen zainketak, gehienetan, honetan laburbiltzen dira: gabezia fisikoak asetzeaz, gaitasunak eta pertsona egiten gaituen guztia ahazturik”, diote. Horregatik, zaintza-eredu egoki baten alde egiten dute.

Antolatzeko beharra

Euren berbetan, “bidegabekeria sozial” horien aurrean beraien artean antolatzeko beharra ikusi zuten eta hortik abiatu zen elkarteak, erakundeekin eta beste mugimendu sozialekin elkarlanean aritzeko asmoekin. Horrela, 300 lagun elkartu ziren Onekaren sorreran, euskal emakume pentsiodunentzat mugarrria izan zelarik.

Onekak Euskal Herriko hainbat herritan funtzionatzen du eta

Oneka elkartearen sorreraren eta bilakaeraren berri emango dute martitzenean Andretxean

bere jarduerak zabaltzen ari da. Esan bezala, beste plataformekin elkarlanean aritzea da Onekaren metodologietako bat, pentsiodunen mugimenduak eta mobilizazioak ahalik eta zabalenak izan daitezzen. Era berean, jendartearekin eta erakundeekin elkarrizketa sustatzea eta elkarguneak bilatzea nahi izaten dute eta, era berean, Euskal Herriko emakume femi-

nisten mugimenduekin bat egitea eta elkarlanean aritzea.

Oneka elkartearen lana funtsezkoa da emakume pentsiodunen eskubideak defendatzeko eta pentsio-sistema bidezkoago bat lortzeko orduan. Hala ere, oraindik erronka handiak daude aurretik. Hala nola, pentsio-sistemaren erreforma integrala lortzea, genero-ikuspegia txertatuz; emakumeen lan-bizitzako etenaldiak eta zaintza-lanak aintzat hartzea pentsioetan; emakume pentsiodunen pobrezia-tasa murriztea; eta gizarte osoaren kontzientziazioa handitzea gai horren inguruan.

Hain zuzen ere, martitzeneko hitzaldiak horretan lagundu dezake, pentsioen gai sozialari buruz elkarrekin eztabaidatzeko eta pentsatzeko aukera izango dugulako genero ikuspegitik. Zentzu horretan, interesgarria izan daiteke pentsioen gaiaren inguruko

Pentsioen gai sozialari buruz eztabaidatzeko eta pentsatzeko aukera egongo da genero ikuspegitik



kontzientzia handitzeko, genero ikuspegitik pentsioen problematika ulertzeko, emakume pentsiodunen egoera hobetzeko proposamenak ezagutzeko, eta herritarren arteko eztabaida eta hausnarketa sustatzeko. Izan ere, guztion parte-hartzea ezinbestekoa da gizarte bidezkoago eta parekideago bat eraikitzeko bidean.

Martxoaren 8ko programazioa

Onekaren hitzaldiarekin ez da amaituko Martxoaren 8aren inguruan prestatu den programazioa. Izan ere, oraindik gelditzen da barre egiteko, hausnartzeko eta aldarririkape-nak egiteko aukera.

Hilaren 20an, eguena, 19:00etan, Beatriz Elgezabal Ollokiegik 'Gregoria' izeneko bakarrizketa saioa eskainiko du Arrate Kultur Elkar-tearen Topalekun.

Egun bat geroago, barixakuan, zine-foruma egongo da Portalean



Euskal Herriko hainbat herritan jarduten du Onekak.

Pagatxaren eskutik. Saioa 18:30ean hasiko da eta 'Ellas hablan' pelikula ikusiko dute eta izango dute mintzagai.

Hilaren 25ean, martitzenean, 'Emakumea mendiko kirolean' izeneko mahaingurua egingo da Portalean, 19:00etan. Bertan Irati Undak, Lur Basterretxeak, Oihana Azkorbeitiak eta Mayi Mujikak hartuko dute parte, Ainhoa Lendinez moderatzaile dutela.

Egitarauarekin amaitzeko, hilaren 29an, zapatua, kultura arteko topaketa egingo da. Merlin Medina Acostak gidatuko du, Andretzeko Berdintasun Zerbitzuak eskaintzen duen zaintzaile eta etxeko langileentzat lan aholkularitza zerbitzuko arduradunak. 'Voces de mujeres' izena du ekimenak eta 16:30etik 19:30era egingo da Portalean. Gainera, haurren zaintza zerbitzua eskainiko da bertan parte hartzea erraztu asmoz.

Beatriz Egizabalek “Gregoria” bakarrizketa eskainiko du egunean

Aurten ere Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko egitarau bete antolatu du Eibarko Emakumearen Mahaiak eta, egitarau horren barruan, Beatriz Egizabalen “Gregoria” bakarrizketa ekarriko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak datorren egunean, martxoak 20. Feminista jaio ala egin egiten da? Galdera horri erantzun nahian “nire bizitzan feminismoak izan duen eragina aztertuko dut. Pasadizo desberdinen bitartez ikerketa eginuz. Haurtzarotik heldutasunera. Birramona, amona, ama, iouinek, telebistak eta lagun feministek izandako eragina aztertuz. Zer ulertu nahi dut? Zer ez dut ulertu? Zer dut ulertzeko? Hori guztia ikuspuntu umoretsu batetik”, dio Egizabalek. Bakarrizketa 19:00etan izango da Arrate Kultur



Elkarteko Topalekun. Sarrera libre da. Kontalaria, pailazoa eta azken urteetan bakarrizketen egilea da Egizabal lasartearra. Azkeneko urteetan herriz herri ibili da “Magma Mia” bakarrizketarekin, eta aurten “Gregoria” bakarrizketa berria aurkeztu du, egunean Eibarrera ekarriko duena.



Urteko Batzara egingo du ...eta kitto!-k

Martxoaren 19an, eguaztena, egingo du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urteko Batzar Nagusia. Batzarrereko lehenengo deialdia 18:45ean izango da; bazkideen erditik gora ez bada bertaratzen, handik ordu erdira egingo da bigarren deialdia, hau da, 19:15ean. Gai-zerrenda hauxe izango da: 2024ko gestibalantzea; 2025erako egitasmoak, bazkide-kuotak eta aurrekontuak;

galdera-erantzunak eta iradokizunak, eta zuzendaritza berriaren hautaketa eta funtzionamendua. Ohikoaren aurretik, baina, ez ohikoa egingo du elkarteak, Estatutuetan hainbat aldaketa proposatu nahi baitizkie bazkideei. Ez ohikoaren lehenengo deialdia 18:00etan izango da; bazkideen erdia baino gutxiago agertuz gero, 18:30ean izango da bigarrena.



Lide Hernando izan da Harixa Emoten saioan

Eguaztenean izan zen Eibarren idazle donostiara Harixa Emoteko irakurle-taldearekin “Izotz ura” liburuari buruz berba egiteko. Ainhoa Aldazabalek gidatutako saioak aukera eskaini zuen liburuari buruzko galderak eta iruzkinak egiteko. Apirileko saiora Karmele Jaio etorriko da, “Maitasun kapitala” liburuarerkin.

“Uste dut denok daramagula barnean ergel bat edo komikotasun moduko bat”

DAVID SUAREZ DE LA PEÑA ‘TXELI’ • Clowna



Ipuruako Merkatu Plaza bizi-bizirik dago. Mota guztietako ekintzak antolatu dituzte bertan eta auzoa piztu dute han egiten dituzten jarduerekin. Beti ez dira, gainera, ohiko kontuak, kasu honetan ikusiko dugun bezala. Izan ere, David Suarez de la Peña ‘Txeli’ eibartarra clown ikastaroa eskaintzen hasi da bertan.

Clown edo pailazoaren figura K. a. 2400 urtetik ezagutzen da eta modu ezberdinetan iritsi da gaur egunera arte. Jantzi eta apain deigarriekin gehienetan, barrea eragiten diguten pertsonaiak dira eta askotan, jantzi eta apain-garririk gabe ere, pailazo bihurtzen gara bizitzako hainbat unetan. Zerbait berezia gertatzen da horrela jokatzeko dugunean, askapen unea izaten da, eta horrekin hobeto konektatzen lagunduko dute Ipuruako Merkatu Plazan eskaintzen diharduten ikastaroan.

Dagoeneko hasi zarete clown ikastaroarekin?

Kartelean martxotik maiatzera izango dela jartzen du, baina ez da zehazten noiz hasiko den eta atzo eman genion hasiera, hilaren 13an. Hamar lagunek eman dute izena eta aurreko astean batzuk kale egin behar zuten eta lehengo egunean denak egotea garrantzitsuena denez, atzo hastea erabaki genuen. Dena dela, oraindik ere izena eman daiteke eta horretarako nahikoa da 649 59 27 97 (Txeli) telefonora deitzea.

Nola jardungo duzue?

Eguenetan egingo ditugu tailerrak, bederatzi edo hamar saio izango dira (taldean erabakiko dugu Aste Santuan eta Maiatzaren leian nola moldatuko garen), 18:30etik 20:00etara, Ipuruako Merkatu Plazan.

Nolako ikastaroa izango da? Zer egingo duzue bertan?

Ikastaroaren kartelean zera jartzen du: “Besarkatu zure barneko ergela”. Uste dut denok daramagula barnean ergel bat edo komikotasun moduko bat, eta hortik jo nahi dut: bakoitza nolako den bilatzea eta hori ateratzen joatea jolasen bitartez. Normalean, klaseak hiru zatitan banatzen ditut. Hasteko, beroketa egiten dugu, orokorrean jolasen bitartez. Gero, teknika edo oinarri baten ezagutza lantzen dugu. Eta amaieran, inprobisazioa egiten dugu.

Gure barneko ergela besarkatzea aipatu duzu. Normalean kostatu egiten zaigu hori egitea?

Bai. Orain dela urtebete umeekin hasi nintzen lanean, eta argi eta garbi ikusten da eurek ez dutela arazorik euren barneko ergela besarkatzeko eta duten gutzia ateratzeko, baina gizartean orokorrean seriotasunez harremantzen gara. Kontua ez da berriz ere umeak izatea, baizik eta nagusiak izatea eta jolastea, ondo pasatzea eta gozatzea. Zentzu horrekin egiten ditugu jolasak.

Bakoitzak nahi duen moduan hartu dezake, baina ikastaroa ez dago clown profesionalak sortzera begira antolatuta, ezta?

Hori da, azken finean hau hastapen tailerra da. Ni neu ere, hasi nintzenean, ez nintzen lehen tailerrera joan etorkizunean clowna izango nintzela pentsatuz, eta



Ipuuako Merkatu Plazak eguenero hartuko du clown ikastaroa maiatzera arte. EKHIBELAR

ez naiz, amateurra naiz. Kontua da jendeak clowna ezagutzea eta gero bakoitzak nahi duen bidea hartzea. Uste dut aukera polita dela clownean hasteko eta zeren inguruan egiten den ezagutzeko.

Inprobisazioa aipatu duzu. Inprobisatzen ikasi egin daiteke edo momentuan irteten den zerbait da?

Momentuan irteten dena da, baina entrenatu egiten da, gauza guztiak bezala. Nik neuk ere galdera berdina egiten nuen bere garaian. Inprobisazio asko jende berarekin egiten badituzu, pertsona hori ondo ezagutzen duzu eta badakizu nondik joango den. Begirada batekin badakizu zer egin behar duzun eta bion artean sortzen diren jolasak garatzea askoz ere errazagoa da. Entrenatzeko aukera ematen du eta entrenatu beharra dago. Gaur egun, oso famatuak egin dira Impro Jam antzerkiak eta ziur nago oholta gainera igotzen direnek entrenamendu pila bat egiten dutela.

Ikastaroan parte-hartzeko beharrezkoa da berezko zerbait edukitzea ala edonork eman dezake izena? Edonor da clown izateko gai?

Ez dakit edozein den gai clown izateko. Jende bat nahiko itxia da eta egia da pixka bat ireki behar zarela

“Clownak gure barneko zerbait darama. Antzezten egon arren, beti du gure izanaren zerbait. Bakoitzak sortzen du bere pertsonaia”

clowna izateko. Azkenean, inprobisatzeko orduan jende aurrean jarduten duzu. Dena dela, oso erraza egiten da. Izan ere, tailerrak bere prozesua darama eta jolasen bitartez taldea sortzen da, teknikak ikasten horretan zentratzen zara eta normalean inprobisazioak ez dira izaten “tira, irteten eta egin zerbait”, baizik eta bideratuak. Beraz, erraztasunarekin hartzen da martxa. Orduan bai, edozeinek hartu dezake parte. Batzuk esan didate lotsatiak direla, ba agian euren clowna lotsatia izango da. Denok ez gara amildegitik behera botatzen.

BIDEOA



Beraz, bakoitzak bere clowna sortzen du?

Clownak gure barneko zerbait darama. Antzetzten egon arren, beti du gure izanaren zerbait. Bakoitzak sortzen du bere pertsonaia.

Jarduera honek nola balio ahal digu gure egunerokotasunerako?

Nire esperientziatik hitz egin dezaket eta hasi nintzanean nolakoa nintzen eta gaur egun nolakoa naizen ikusten badut, aldatu naizela esango nuke. Are gehiago, arazoen aurrean ikuspuntu ezberdinak begiratzeko orduan ere ezberdin jokutzen dut. Adibidez, orain gauza asko ez ditut ikusten arazo bezala. Moduren batean lasaitu egin dit bizitza. Bitxitasun bezala, gauza bat gogoratzen dut. Donostian clown ikastaroa egiten hasi nintzen eta autobusean joaten nintzen. Clownean begirada oso garrantzitsua da eta gogoratzen dut lehenengo klaseetan esaten zigutela kalean begirada lantzeko. Orduan, behin, autobusera igo eta nire aurrean pertsona bat jarri zen, eta begirada lantzeko unea zela ikusi nuen. Aurpegira begiratu nion eta begiradari eutsi zidan. “Aiba Dios, ez nuen pentsatzen horrela gertatuko zenik”, eta minutu baten ondoren aurpegia kendu nuen (barreak). Bai, tira, clownean ikasitakoa zure bizitzara eraman dezakezu eta, adibidez, jendea barre batekin agurtzen baduzu, beste modu batean erantzuten dizute. Horrekin ez dut esan nahi beti barrezka egon behar garenik, batzuetan bizitza kaka bat delako.

Agian autobusean begirada eutsi zizuna ere clowna zen?

(Barreak) Agian bai, lehia egin zidan.

Nola hasi zinen clown munduan? Nola sortu zitizain jakinmina?

Pintxo-pote batean. Donostian bizi nintzen eta pisukide batek esan zidan Guardetxean clown tailerra zegoela. Pisukide guztiek eman genuen izena eta demaseko asteburu polita pasa genuen. Harrezkero gauza gehiago bilatzen hasi nintzen eta urte batzue-



tan Durangon egiten zen Topaklownera joan nintzen. Niretzat zaletasuna zen, baina oso jende profesionala joaten zen bertara eta jende asko ezagutu nuen.

Eibar inguruan badago clownik?

Nerea Ariznabarreta, erreferentea. Topaklownean ezagutu nuen pixka bat gehiago eta bera da Eibarko erreferentea.

Bera profesionala da. Zuk nola hartzen duzu clown izatea?

Donostian egon nintzen bitartean gogor ekin nion clown munduari, baina Eibarrera etorri nintzanean ez nuen ezer aurkitu. Donostiara joaten jarraitu nuen, baina zentzu horretan ez dut neure tokia aurkitu Eibarren. Orain Ipuruara joan naiz berriz ere bizitzera eta beti itxita ezagutu dudan merkatu plaza zabaldu zutela jakin nuen. Hango elkartekoekin egin nuen berba clownaren inguruan zerbait egin nahi nuelako eta, talde bat aurkitzen ez nuenez, nik neuk sortzen saiatu naiz. Hori da ikastaroaren helburuetako bat. Horrez gain, auzoari zerbait eskaini nahi diogu. Elkartekoek demaseko lana egiten dihardute eta zerbait bueltan ematea da asmoa. Tailerrak, hitzaldiak, musika-saioak... gauza asko ari dira egiten Ipuruako Merkatu Plazan eta jendeak ondo erantzuten du.



ANTXON GUTIERREZ / PATXI MUTILOA

Hiru eskulturen historixa

Aratostiak eskua luzatzen detse beti irudipenari eta sormenari. “Eibarko eskulturaz” mozorrotutakuak izan dira aurtengo protagonista nagusienak. Gure esker onena brontzezko eskulturori “bizitza emon” detsazueneri hain modu bikaiñian: ideia ezinhobiori ezin leike hobeto plasmatu.

Aurreko mendeko 90. hamarkadako amaieran gengozen ordurako sustraitutako ofiziuak, ohitturak, jaixak... irudikatzeke kaleko eskultura batzuk egitteko ideia sortu zanian, horrek guztiak hurrengo belaunaldixetako memorixan be txertatzeko.

95/99 legegintzaldixa zan, Iñaki Arriola alkate zan, Antxon Gutierrez Kultura ziñegotzixa eta Patxi Mutiloa Alfa Arteko gerentia; gaur egun bere sektorian erreferentia dan Alfa Arte proiektua orduan abiatu eban Enrique Treviñok. Asmua urtero eskultura bat egin eta ipintzia zan, aukeratutako gaixarekin harremana zekan herriko toki batian.

San Blas egunian San Andres parroixan egitten zan torten bedeinkapenaren harira, irudixa sortu eta bertako portikuan fetxa horretan irudixa kokatziarekin hasi giñan. Diego Cruz Azpeittiko artistia izan zan egillia, bere seme-alabak modelotzat hartuta.

“Botijerua” bezala ezagutzen dogunak egille berbera izan zeban. Kasu horretan fotografixa bat erabilli eban: bihargin batzuk ikusten ziran bertan botijua betetzen aspaldiko Urkusuko iturrizan, gaur egun tokiz aldatuta daguana (horregaittik erabagi zan kokaleku barrixan ipintzia).

“Dultzaineruaren” eskulturak be badaka bere istorixia. Egilliak eskatu zeskun bere izena ez kaleratzia –gaur egun artista ospetsua da– eta horregaittik gordetzen dogu hartutako konpromisua. Bere kontzeptu artistikuak ez zekan zerikusirik obrarekin, baiña diru premiñia zekan. Sasoi hartan Txomin Mujika Elgoibarko dultzaineruak Untzagako Caja de Ahorros Provincialeko sukursalian egitten zeban biharra. Berarengana jo genduan eta berehala prestatu zan modeluarena egitteko; bere ustetan, “hatzamarren posiziñua dultzaiñan oso inportantia zan” eta han egon zan artistarentzat posatzen. Ubikaziñua erraza genkagun, Estaziñuan hartzen dittugu-eta Estellako dultzaineruak Sanjuanetako jaixeri hasiera emoteko.

Horren eskulturon fundiziñua eta patinadua Alfa Arten egin zan, bertako bihargin guztien inplikaziñuarekin. Aittatutako proiektuak beste figura batzuk be aurreikusten zittuan, Eibarko ofizio tradizionalekin lotutakuak, eta eurekin lotutako kalietan kokatzekuak: Urtzaille, Fundidores, Armeria eta Grabadores. 1999xan, legegintzaldixaren aldaketiarekin, guztia geratu zan, baiña iñoiz ez da berandu holako ekimeneri barriro be heltzeko.

Orduko hiru eskulturak kokatu zirala ixa 30 urte bete diranian, herriko ikono bihurtuta dittugu. Beste eibartar batzuk dira. Aratostietan izan dabean arrakastia ispillurik onena izan leike eurengaittik sentitzen doguna eta guztiontzat adierazten dabena gogoratzeko. Zaindu deigun!

Naturaren deiari erantzuteko zapatua

Biharkoan naturari gerturatzeko aukera paregabeak izango ditugu herrian. Alde batetik, Zuhaitz Egunarekin lotutako programazioa izango dugu. Eta, bestetik, loreen, landareen eta zuhaitzen Azokak 15. edizioa beteko du. Lehen ekimena Deporretik abiatuko da eta Izuan amaituko. Bigarrenak Urkizuko parkea hartuko du.

Zuhaitz Egunaren bueltan 350 zuhaitz eta zuhaixka autoktono landatuko dira Urkoren magalean dagoen Pagaegikortako udal-lursailean. Ingurumen Sailak basoberritzen jarraitzen duen honetan, boluntarioen jardunaldia eibartar guztiei dago zuzendua. Ekimenean Baso Biziak elkarteak, Eibarko Klub Deportiboak eta Lurgaiia Fundazioak hartzen dute parte.

2023an Udalak Pagaegikorta baserria eta bertako lursailak erosi zituen: hiru partzela, 23 hektarea eta erdiko azalerarekin. Lursail batzuetako pinuak moztuta, 2024ko otsailean Urkoren magalean baso autoktonoa lehengoratzeko proiektuaren lehen fasea egin zen. Horrela, saka-bide batzuk berriztatu dira, 11 putzu sortzeaz aparte, biodibertsitate handiko guneak gauzatu. Espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko lanak ere egin dira, 27 espezieetako 8.614 zuhaitz eta zuhaixka landatu.

>>> 14 espezie autoktonotako 350 zuhaitz eta zuhaixka landatuko dira Pagaegikortako lursailean



Basoak Bizirik-ek iaz antolatutako landaketan eguraldiak ez zuen larregi lagundu.

tuaren lehen fasea egin zen. Horrela, saka-bide batzuk berriztatu dira, 11 putzu sortzeaz aparte, biodibertsitate handiko guneak gauzatu. Espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko lanak ere egin dira, 27 espezieetako 8.614 zuhaitz eta zuhaixka landatu.

Oraingoan 14 espezie autoktonotako beste 350 zuhaitz eta zuhaixka landatuko dira, tartean haritzak, pagoak, hurritzak, lertxunak, makatzak, sagarminak, ahuntz-sahatsak, sahats ilunak, zuhandorak, elorri beltzak, hostazuriak, ereinotzak, elorri zuriak eta otsalizarrak.

Taldeka egingo da Pagaegikorta lursailerako iagoera, bi elkargune

egonik: 08:30ean Deporren bata eta 10:00etan Izuan bigarrena, Urkorako igoerarako aparkalekuan. Arbolon landaketa 10:00etan hasiko da eta 13:30ean amaituko, Izuako parkean egingo den luntxarekin. Hori bai, ekitaldian parte hartzeko plazak mugatuak dira eta, horregatik, ezinbestekoa zen aurretik Lurgaiia Fundazioan izena ematea.

Ingurumen Saileko buru Eva Juez zinetotziak kaleratutako oharrean dioenez, "baso autoktonoen eta haietan gertatzen diren prozesu guztien lehengoratzeko natura-, paisaia- eta kultura-ondarea berreskuratzeko dakar".



Lore, Landare eta Zuhaitzen Azokak, urtero bezala, Urkizun izango du kokagune. Udalak eta Dekolore elkar-teak antolatuta, Euskal Herriko hainbat herritatik etorritako 13 ekoizle izango dira bertan, ahaztu barik umeentzako bi tailer ere eskainiko direla. Dekolore landareen inguruko dibulgazio-elkartearen eskutik datorren azokak zapatu goiz eta eguerdian hartuko du, 10:00etatik 14:30era.

Beti bezala, mota guztietako landare eta lore naturalak ikusteko eta erosteko aukera egongo da, tartean fruta-arbolak, arrosa-landareak,

>>> 13 ekoizle izango dira Urkizun Dekolore elkartearen eskutik antolatutako Azokan eta umeentzako bi tailer ere egingo dira

zuhaixkak, barruko landareak, sasoiakoak, usaintsuak, baratzeakoak, kaktusak... Erabilera tradizionala eta sukaldaritzako haziak eta belarrak ere egongo dira, kosmetika naturaleko produktuak eta artisautza ikutukoak, hala nola lore prentsatuarekin egindako koadroak, lore-motiboak dituzten bitxiak, edo banbuzko oinarrietan kapsulatutako lore lehorrez edo eukaliptoarekin egindako bitxiak.

Azokaren beste helburuetako bat da landareen erabilerari buruzko informazioa zabaltzea. Hori dela eta, umeentzako bi tailer egingo dira: 11:30etik 12:30era prentsatuaren loreena; eta 12:30etik 13:30era landatzen ikasteko tailerra. Azokak ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko topagune izan nahi du, ekoizleek euren eskaintza zuzenean publikoari erakutsi eta, horrela, hurbileko eta zuzeneko salmenta mota bat ahalbidetuz.

XV. edizio honetan parte hartuko duten ekoizleak hauek dira:

Oiartzungo Zunoyar Lorategia (barrurako, apaintzeko eta bildumarako landareak) eta Islaya (kaktusak eta landare zukutsuak), Iurretako Ortuberri (baratze- eta lore-landareak) eta Javier Beasakoetxea (moztutako loreak, lore lehortua, kaktusak eta landare zukutsuak), Zaldibarko Viveros Belar (fruta-arbolak), Atxondoko Tissus Artisautza (lore lehor kapsulatutakoak), Usurbilgo Urtinea (barrurako landareak, apaintzekoak eta sasoiakoak), Lasarteko Hazi Ekologikoak (erabilera tradizionala eta sukaldaritzako haziak eta belarrak), Donostiako Lore Prentsaturia (lore prentsatuak, lore lehorrekin egindako koadroak), Aizarnako Sara Letamendia (kosmetika naturaleko artisau-produktuak), Lekunberriko Sojo Natura (kosmetika naturaleko artisau-produktuak), Aritzurenge Tiendua (kosmetika naturaleko artisau-produktuak) eta Nafarroako Flores Ganchillo (lore-motiboak dituzten bitxiak).

Egun berean

Naturara gerturatzeko interes handiko ekimen biak egun berean koinziditzea pena izan daiteke, bata zein bestea lotzeko aukerarik egon badago ere. Aurreko urteotan Azoka zapatuetan egin izan bada ere, zuhaitz landatzearena gehienetan domeketan egin izan da gurean. Modu batean zein bestean, nongo zuhaitza besarkatu, hor egon daiteke zalantza bakarra. Dena dela, on egin, goiz-eguerdi ezin osasuntsuagoa bizitzeko aukera dugu eta!



Urkizuko Azokan izango da zer eskuratu ekoizleek eskainitako produktu ugariaren artean.



FELIX MORQUECHO

Gaur egungoak

2021. urtean Mark Zuckerberg-ek bere 'metabersoa' aurkeztu zuen. Erdi brometan hartu genuen mundu birtual hura, non gure abatarrak gauza pila egin ahal izango zituen benetako pertsona bat bezala. Ez naiz oraindik mundu horretan sartu, lasai, eta akaso ez dut inoiz egingo. Ez dakit errealtate bat den jada eta, egia esan, niri bost axola. Nahiko korapilatsua bada bizitza normal bat edukitzea benetako gorputz batekin, aurrez aurreko lagunak, familiak ematen dizkizun pozak eta arazoak, beharra...

Baina metabersoraino joan gabe bada mundu digital bat hautazkoa ez dena askotan. Nork ez du entzun hurrengo erantzuna azken urteetan?

“Hau on-line egin dezakezu”.

Edo okerrago:

“Hau on-line egin behar duzu”.

Aurrez aurre edo telefonoz hitz ez egiteko aitzakia bila dagoen gazteari akaso mesede egingo diote horrela, baina gizartea ez da adin batezbesteko bat, anitza da arlo guztietan. Gaur egungo jendea? Hor ditugu gure jubilatua informatika klaseak ematen. E-maila, watxapa, Facebooka... Zertarako? Sare sozial bat zer den bereizteko, edo web orri bat, edo jakiteko bere mobileko pantailan azaltzen dena zer demontre den, Eibar foballa taldeko orri ofiziala, Google-ek ematen digun informazioa edo YouTube-n bukatu dugu klik pare bat nahi gabe eginda.

Informazio kanalak ez dira inoiz hain zabalak izan. Horregatik bertako bideak ez dira autopistak, benetako oihanak dira. Dakienarentzat primerazko erreminta da, baina kanpotik hurbiltzen denarentzat... esaiozu bere hurrengo tramitea on-line egin behar duela. Ez dakit egun batean metaberso hori errealtate izango den, akaso lagungarri ere, baina egia borobila da gizakiok badugula benetako bizitza bat eta, zorionez edo zoritxarrez, hemen eta orain tokatu zaigu. 2025eko belaunaldikoak ez dira 2000. urtean jaiotakoak, orain urtebete duten umeak gaurkoak dira, mende erdira hurbiltzen ari garenak ere, eta bizirik dirauten gure arbaso zaharrenak ere, denak gara 'gaurko jendea'. Eta denok gure aukera behar dugu. Kafe berdina gaur egungoentzat? Ba nik ebakia, “eta nik hutsa” dio besteak.

“Informazio kanalak ez dira inoiz hain zabalak izan. Horregatik bertako bideak ez dira autopistak, benetako oihanak dira”

Ipuruako kadeteak hirugarren EAE-ko txapelketan

Aurreko zapatuan gure herriko gimnastek Gasteizen eskuratutako postu aipagarrienen artean, Ane San Martinek jubencil base mailan Espainiako txapelketarako lortutako txartela eta kadete base taldeak Euskadiko txapelketan bereganatutako hirugarren postua daude. Hortik aparte, jokaturako federatuen mailako Euskadiko Ligako lehen fasean Nahia Arguiz 10. postuan sailkatu zen, eta Haizeder ahizpa 15.a izan zen.



Bihurri Aizkolariren finalean izango da

Hodei Ezpeleta eibartarra etzi Azeptiko Izarraitz pilotalekuan jokatu den 25. Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketaren finalean izango da, Arkaitz Etxebeste lagun duela. Final horretan beste bi bikote izango dituzte aurkari: Julen Alberdi "Txikia IV" eta Jon Rekondok osatutakoa batetik, eta Iker Vicente eta Eneko Saralegik osatutakoa bestetik.



Kalamuako judoka gazteak txapelketetan

Zapatuan Legazpiko Hiria Nazioarteko Torneoan izan ziren parte hartzen eta domekan Gipuzkoako alebin mailako txapelketaren hasieran. Judo Legazpik antolatutako torneoan Aner Gonzalezek brontzea irabazi zuen 50 kilora arteko mailan eta Julen Martinek (60 kilora arte) eta June Valladares (57 kilora arte) diploma eskuratu zuten. Eurekin hartu zuten parte baita

Ekhi Carballok eta Sara Azpiatzuk ere. Bestalde, domekan abiatu zen alebin mailako Gipuzkoako Txapelketaren barruan, Kalamuako bederatzi ordezkari hartu zuten parte. Uxue Gutierrezek, 40 kilorainoko mailan, eskuratutako lau garaipenak eta Josu Garrok, 34 kilora artekoan, eskuratutako lau garaipen eta porrot bakarra izan ziren lorpen aipagarrienak.

JAZ Eibar Triatloi Taldeko boskote batek hartu zuen parte Añorgako Duatloian

JAZ Eibar Triatloi Taldearen ordezkari zabala izan zen Añorgako Duatloi Sprintean, 5 kilometroko antxintxiketaldia, 20 kilometroko bizikleta gainekoa eta, amaitzeko, beste 2'5 kilometro arineketan egiteko izan zuen proban. Zortea ez zen taldeko duatleten alde egon, Idoia Uruñuelak eta Iñigo Gastonek lasterketa utzi behar izan baitzuten arazo mekanikoengatik. Baina beste hirurek maila onean amaitu zuten proba: Pablo Zabala onenengandik gertu egon zen (12.a helmugan), Ugaitz Gartzia 43.a izan zen (hirugarrena jubencil mailan) eta Roberto Gartzia



Idoia Uruñuelak arazo mekanikoak izan zituen Añorgako proban.

ere, 64.a izateaz gain, hirugarren sailkatu zen V2 mailan.

Mendi Tour-eko filmak hartuko dituzte Mendi Jardunaldiek datorren astean

Martitzenean eta eguaztenean, urteroko bidetik, eskainiko dituzte Mendi Tour-eko pelikulak, Mendi-Filmeko onenarekin bildutako programazioarekin. Egun bakoitzean lau film proiektatuko dituzte eta sarrerak 5 eurotan erosi daitezke.

Martitzenean Marcial Sommer-en “Connecting 3 Cime” (7 minutu), Iciar Casatmitjanaren “Modo Avion” (15 minutu), Davina Montaz-Rosset-en “Always Alive” (35 minutu) eta Jérôme Tanonen “Of a Lifetime” (44 minutu) emango dituzte. Cima Grande eta Cima Piccola arteko lehen highlinea, 15 egun “hegazkin moduan” gailu elektronikoz guztiak itzalita, Mont Blanc-en lortutako trail running-eko errekorrik entzutetsuena eta De Le Rue freerider familiak Antartikara egindako bidaia dira egun horretako gaiak, hurrenez hurren.

Eguaztenean Jim Aikmanen “The Red Rock Revolution” (8 minutu), Darcy Hennesseyren “Jamie” (18 minutu), Francesco Clerici eta Tommaso Barbaroren “The Ice-builders” eta Ander Salsamendiren “Hiru Haundiak. Taupadak eta gailurrak” (54 minutu) proiektatuko dituzte. Egun horretako gaiak Jorge eta Joanne Uriostek sortutako eskalada bideak, alpinista baten sexu eraldaketa, Himalaiako ladakhitarrek glaziar artifizialak zelan sortzen dituzten eta gure inguruko Hiru Haundiak ospetsua izango dira.

Bestalde, hurrengo domekan IX. Negutrail topaketa izango da Jardunaldien barruan. Horko protagonista mundu mailan erreferente den Javier Dominguez Ledo lasterkaria izango da. Irteera doakoa da eta edozeinek hartu dezake parte, nahiz eta izena ematea beharrezkoa den.



Mek Eibar Eskubaloiak aurreko bi taldeei gerturatzeko aukera du

1. Nazional Mailan jokatzeko duen Mek Eibar Eskubaloiko lehen taldeak galdu gabe jarraian 13 partiduko txanda osatu zuen aurreko asteburuan. Pena bakarria hiru egun

lehenago Zaragozarekin berdindu izana Ipuruan. Hori dela eta, Loiolari Ipuruan 32-22 irabazi ondoren, Fernando Fernandezek 3. postuan jarraitzen du, Anaitasuna

eta Zaragoza aurretik daudela, bost eta hiru puntutara hurrenez hurren. Asteburu honetan, Mek Eibar-ek Tolosari bisita egingo dion bezala, Anaitasunak eta Zaragozak euren artekoa izango dute; horrek aukera eman diezaiokie Eibarko taldeari aurrekoekiko aldea murrizteko, bietako batek behintzat plenoa ez duelako lortuko.

Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatzeko duen Mek Eibar Eskubaloiak, bestalde, oraingoan ezin izan zuen garaipena eskuratu Camargori egindako bisitan. Baja asko izanda ere, Andoni Perezek nahiko borrokatu zuten; baina, atsedendira aldeko 14-15ekoarekin erretiratu arren, azkenean 28-25 galdu zuten.



Igoerako promozio fasean sartzeko asmoak ez dituzte galdu Mek Eibar Eskubaloioek.

Ez dago gol bakoitzari errendimendu hoberik ateratzen dion talderik

F Ligako SD Eibar taldeak denboraldi honetan erakusten diharduen sendotasuna eredugarria da. Aurreko atean golak sartzea ez du errazaz izaten, baina atzean zelan defenditzen duen lortutako bakoitza ez du parekorik. Yerai Martinen taldeak 16 gol besterik ez ditu lortu orain arte jokaturako 21 jardunaldietan, baina horiekin dagoeneko 24 puntu ditu sailkapenean. Hau da, sartutako gol bakoitzarekin puntu eta erdi irabazi ditu talde armaginak. Aurrekoarekin lotuta doa baita puntu horiek zelan lortu dituen ere: etxean, zaletuen aurrean, 10 besterik ezin izan ditu batu; etxetik kanpo, bestalde, 14rekin bueltatu



da taldea. Kanpoan lau partidua irabazi ditu dagoeneko (azken bost irteeretan), etxean birekin jarraitzen duenean; bi horiek, gainera, liga hasieran lortutakoak dira, Ipuruan hasi baitzuen denboraldia etxean jarraian jokaturako bi partiduekin.



Gipuzkoako 54. hiru txirlo txapelketa abiatuko da zapatuan Sorraluzen

Probintziako txapelketaren 54. edizioak, urteroko bidetik, hamar tiraldi izango ditu eta 11.ean, Lehendakari Saria jokoan izango denean, erabakiko dira egon daitezkeen parrukoak. Tiraldiak zapatuero egingo dira, bihar hasi eta maiatzaren 31ra arte; Lehendakari Saria, bestalde, ekainaren 7an jokatu da. Tiraldiak San Andres (Sorraluze), San

Miguel (Elgoibar), San Joxepe (Bergara), Lastur (Itziar), Asola Berri (Eibar), San Pedro (Elgoibar), Ezoz (Sorraluze), Aretxabaleta, Elgeta eta Leintz-Gatzaga bolatokitian egingo dira, eta Lehendakari Saria Azkoitiko Floreagan. Jaurtialdiak 17:00etan hasiko dira eta izen-ematea 5 eurokoa da; sariak izango dira egun bakoitzeko sei onenentzat.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

SD EIBAR - Levante Badalona (etzi, 18:00)

Gizonezkoen 2. Maila

Racing Ferrol - SD EIBAR (bihar, 14:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

SD EIBAR B - Izarra (etzi, 15:45)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Athletic B - SD EIBAR B (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Urduliz - SD EIBAR C (bihar, 17:00)

Emakumezkoen Euskal Liga

SD EIBAR C - Sestao River (bihar, 15:30)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Segura Aizkorri (etzi, 12:30)

Anaitasuna B - EIBARTARRAK (etzi, 16:30)

Erregionaleko 1. Maila

URKI B - Lazkao B (bihar, 12:30)

Jubenilen Nazional Liga

Indartsu - SD EIBAR B (bihar, 18:00)

Jubenilen Euskal Liga

URKI - Deusto (bihar, 18:00)

Kadeteen Euskal Liga

SD EIBAR - Tolosa (etzi, 12:45)

FUTBOL-ZALETUA

- Limpieza Rueda - G. Garcia (bihar, 09:00)
- Baserri - Adahi Etxegi (bihar, 10:30)
- Xania Taberna - BOJ (etzi, 09:00)
- Bar Marem - Malape Taberna (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBARTARRAK - Egingtza (bihar, 15:30)

ESKUBALOIA

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

Tolosa - MEK EIBAR (bihar, 20:00)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Egia Baztarre (bihar, 18:30)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Txingudi (etzi, 12:00)

Gizonezkoen Jubenilen Euskadiko Liga

MEK EIBAR - Zumaia Pulpo (bihar, 09:45)

ERRUGBIA

Gizonezkoen Euskadiko Liga

Gipuzkoa Sortzen - EIBAR RT (bihar, 16:00)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

G. Sortzen - ARRASATE EIBAR (bihar, 17:30)

SASKIBALOIA

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Mondr. Un. - ARTES. JUANTXO (bihar, 17:00)

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Luberri Baserria - EIBAR (gaur, 19:45)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Nazional Maila

CN Vallirana - URBAT (bihar, 16:30)

Euskal Herriko 1. Maila

Lauro - URBAT B (gaur, 21:30)

JON ALONSO • Abeslaria

“Musikaz gain, beti eduki dut antzerki grina piztuta”

Txiki-txikitatik dihardu musika munduan. Egiten duenarekiko maitasunari talentua gehitu dio eman dituen pauso guztietan. Bere ahotsaren oihartzunak hainbat leiho zabaltzeko aukera eman dio eta orain atea irekitzeko ordua iritsi zaio. Ondo apuntatu: Jon Alonsok bere proiektu pertsonala aurkeztuko du apirilaren 4an, Coliseo antzokian.

Atea Irekiz deitzen da Jon Alonsoren proiektua. Izen eta abizenarekin, bera den moduan azaltzen delako eszenatoki gainean. Dena dela, oholtzan ez da bakarrik egongo, bere ibilbidean garrantzitsuak izan diren artista eta lagunak egongo baitira. Sarrerak gaur bertan jarri dituzte salgai Kutxabank bitartez eta Coliseoko leihatilan.

Apirilaren 4an atea irekiko duzu, eta nola gainera! Demaseko ikuskizuna prestatu duzue.

Ate bat zabalduko dugu, bai. Beti eduki izan dut bakarleri moduan proiektu bat garatzeko gogoa, baina ETB-ko Ztanda saioan sartu arte eta publikoaren erantzuna eta ni neu eszenatoki gainean nola sentitzen nintzen ikusi arte ez dut aurrerapausoa eman. Gabonen ostean ideia piztu zen, Udalarekin berba egiten hasi nintzen eta apirilean ikuskizuna eskaintzea zehaztu genuen. Gainera, jende pila bat dabil proiektuan eta horrelakoetan zaila da denontzat ona den data bat zehaztea, baina planetak lerrokatu egin dira. Neure burua bakarleri bezala aurkeztuko dut bertan. Laguntzaile askorekin arituko naiz, baina nire aurkezpen-gutuna izango da.

Zeintzuk arituko dira zurekin?

Nire ibilbidean betidanik aritu direnak eta azken hilabete edo urteetan heldu

den jendea. Alde batetik, Elena Martin Eibarko Koro Gazteko (EKG) zuzendari kuttuna dago. Musikaren munduan nire gidaria izan da. Berak piztu zidan musikarekiko eta abestearrekiko grina. Gero, Oihane Zabala eta Garazi Aizpurua daude. EKG-n ezagutu nituen eta demaseko harremana dut eurekin. Abesbatzak bigarren familia eman digu, asko batu gaitu. Gainera, Oihanerekin eta Garazirekin ODE taldea sortu genuen orain dela hilabete batzuk, ...eta kitto!-k antolatzen dituen Eibarko Kirol Sarietan aurkeztu genuena. Gutako bakoitzak argi du bakarleri moduan bere ibilbidea egingo duela, baina ekitaldietan, ezkonzetan eta bestelako ospakizunetarako taldeak behar dira eta horrelakoetan aritzeko elkarrekin aritzea hobeto zela ikusi genuelako sortu genuen taldea. Beste alde batetik, Ztandan nirekin ibili zen Leila Askaso ere egongo da Coliseon. Finalera heldu ginen biok eta ordu asko eman ditugu elkarrekin, harreman estua dugu. Gainera, Ztandako dantzari bi izango dira proiektu berriaren dantza-arduradunak, ikuskizunean dantza egiteaz gain: June Viñas eta Nahir Alkain.

Nolako proiektua izatea gustatuko litzazuke?

Etorriko den guztiarentzat zabalik dagoen proiektua da. Izen artistikoa Jon Alonso izango da, ezagutzen nauen pertsona batek esaten zidalako ez zue-





Bakarleri bezala aurkezpena egingo du Jon Alonsok Coliseo antzokian. MAITANE CAMPOS

“Atea Irekiz etorriko den guztiarentzat zabalik dagoen proiektua da”

“Nire ibilbidean betidanik aritu direnak eta azken hilabete edo urteetan iritsi direnak arituko dira apirilaren 4ko ikuskizunean”

la ezberdintasunik ikusten abeslari moduan igortzen nuenaren eta eszenatokitik kanpoko Jon Alonsoren artean. Horren inguruan asko pentsatu izan dut eta ondorio berera iritsi naiz: Jon Alonso artista eta Jon Alonso pertsona berdina da. Ikuskizuna aurkezpen bat da, baina dagoeneko hasi naiz idazten eta abestiak pentsatzen, eta proiektu puntualak heltzen badira (abesti bat kaleratzea, kolaborazioren bat egitea...), taldean komentatuko dugu eta ikusiko dugu proiektuan txertatu ala ez. Gauza batzuk iristen ari dira, ni neu ere aukera berrien bila nabilelako ate joka.

Ateak irekiz!

Hasieratik demaseko metafora izan da. Proiektua lantaldearen aurrean aurkeztu aurretik diskurtso bat pentsatuta eraman behar nuela pentsatzen nuen, batez ere beraiek ulertzeko hau guztia zer den. Hainbat buelta eman ondoren,

Ztandako azken saiora iritsi nintzen eta bertan esaten nuen ibilbide berri bati “atea zabaltzen” ari nintzela. Bi hitz horiek buruan grabatuta geratu zitzaizkidan eta lehengo proiektua hor zela argi ikusi nuen: Atea irekiz.

Nola daramazu artista izateaz harago dauden gauzak kudeatzea?

Jendeak esan izan dit agian horrelako gauzak egiten lagunduko didan norbait beharko nukeela (artisten irudiaz, kudeaketaz, casting-ez... arduratzen den jendea). Izan ere, musikaz gain, antzerki munduarekin ere eduki dut harremana eta beti eduki dut antzerki grina piztuta, orain are gehiago. Bide horretan ere aukerak sortzen ari dira, baina nire moduan asko daude eta horra heltzea beste kontu bat da.

ELKARRIZKETA OSOA:
WWW.ETAKITTO.EUS

XLVIII. ANTZERKI JARDUNALDIAK



martxoak 14 (barixakua)



“Hoy no estrenamos”

L'Om imprebis (Valentzia)

KOMEDIA / 75'

Antzezleak: CARLES CASTILLO, CARLES MONTOLIU, SANTIAGO SANCHEZ, VICTOR LUCAS
Zuzendaria: MICHEL LOPEZ

Lehen ordu laurdenaren ondoren, argi dago lau aktore direla, baina 16 pertsonaia. Eskeletotik egindako antzerki-lana da, erraiari eta emamuinari egindako oda bat. Minutu emozional eta sintetikoak, antzerkiak fikzioa izateari nola uzten dion erakusten dutenak, egunerokoarekin bat egiteko.

Coliseo (19:00)

martxoak 15 (zapatua)



**“Moko, Indalecio
Bizkarrondo `Bilintx`”**

Gorakada (Bizkaia)

HAUR ANTZERKIA / 50'

Antzezleak: SANDRA FERNANDEZ AGIRRE, ...
Zuzendaria: ALEX DIAZ

Enpatiaz, errespetuaz eta tolerantziaz hausnartzeko antzezlana da. Moko beste edozein ume bezalakoa zen, istripu baten ondorioz munduaren begietarako monstruoa bilhurtutakoa. Baina dohain magikoa du eta, haurra heldu egiterakoan, herriak hainbeste maite zuen Bilintx poeta bilakatu zen.

Coliseo (17:00)

martxoak 16 (domeka)



“Hona”

Dantzaz (Gipuzkoa)

DANTZA / 70'

Antzezleak: ANTONIO AGUILERA, MAIALEN ALBERRO, OIHANE ARAMENDIA, NEREA BAKERO
Zuzendaria: ADRIANA POUS

Dantzaz konpainiaren programa berritzailea da, bi pieza koreografiko bikain aurkezten dituena, baikoitza bere nortasun eta ikuspegi artistikoarekin. “Hemen eta orain”-a arakatzeko nahia islatzen du, publikoa bidaia emozional eta bisual batera eramanez, “Hondo” eta “Aire sakona” lanekin.

Coliseo (19:00)

martxoak 21 (barixakua)



“Las que gritan”

Pentación y Coribante (Madril)

KOMEDIA / 95'

Antzezleak: SOLEDAD MALLOL, EVA ISANTA, ROCIO MARIN, MARIONA TERÉS
Zuzendaria: JOSE M^a DEL CASTILLO

Komedia-tonu barregarriarekin, bizitzan bezala, errealitate bat islatuko dute, batzuetan kontrolik gabea izan daitekeena, dibertigarria beste batzuetan, gupidagabea aldzika, mistikoa tarteka, aurreikusi ezin dena zalantzarik gabe, eta surrealista sarritan. Hiru ahizpa eta desagertutako ama bat.

Coliseo (19:00)



Antzerki Jardunaldietako asteburuko euskarazko lanetako bat atzeratu dute

Patxo Telleriaren "Moko, Indalecio Bizkarrondo 'Bilintx'" umeentzako lan aproposa zapatuan izango da ikusgai Coliseon, 17:00etatik aurrera. Baina domekan Kamikaz Kolektiboak Uni-Eibar esparruan eskaini behar zuen "Renata" apirilaren 6ra atzeratu dute.

6 urtetik gorakoentzat gomendatutako "Moko" enpatiaz, errespetuaz eta tolerantziaz hausnartzeko antzezlan da. Bera beste edozein ume bezalakoa zen, baina bere abenturarako batean altuera handi batetik erori eta aurpegia desitxuratu zuen, munduaren begietarako munstro bihurtuz. Bakarrik sentitu arren, dohain magiko bat zuela ohartuzen:

hitzak hegan ikusi, hartu eta bertso bihurtzen zituen. Haur hori heldu egin eta herriak hainbeste maite zuten poeta bilakatu zen, Bilintx hain zuzen. Patxo Telleria da 50 minutuko antzezlano zuzendaria, jatorrizko ideia Alex Diez eta Fran Lasuen eibartarrarena bada ere; eta, jakina, obra girotzen duen musika Lasuen beraren ardura da.

KULTURA SAILEKO OHARRA:

Konpainiaren eta Udalaren arteko gaizki ulertu bat dela eta, martxoaren 16rako aurreikusia genuen "Renata" antzezlana dataz aldatu behar izan dugu. "Renata" antzezlanean funtzioaren **data berria apirilaren 6a da, arratsaldeko 7etan hasita Uni-Eibar Antzokian**. Funtzio data berri honetara joateko erositateko tiket guztiak aldatu behar ditugu (Coliseoko leihatilan antzokiaren ohiko salmenta-ordutegian, astelehenetan eta ostiraletan, 17:30etik 19:30era, eta funtzio-egunetan). Martxoaren 16rako sarrerek ez dute apirilaren 6rako balio. Data-aldaketa honetarako sarrera erosi duen norbaiti etortzea ezinezkoa egingo balitzaio, dirua itzultzeko kanalen informazioa datorren astean zabalduko da (943 708 435 telefono zenbakia).



Azken orduan kaleratutako data-aldaketa.

Otsailean estrenatu zen "Renata" komediak, bestalde, 75 minutuko iraupena du eta Erika Olaizola, Iraia Elias, Amancay Gaztañaga eta Xanti Agirrezabala ditu ohol-tza gainerako protagonistak. Komedia jostalari bat da Renata, gizarte ero bat salbatzeko ardura izango duena; horretarako, lurtarrak ez diren gizaki batzuek helarazi zioten mezua zabaldu beharko du. Distopia batean girotutako antzezlanean, ikusleak Renataren bidaia ikusi ahal izango du, baita bere helburua betetzerik duen edo ez ere.

Antzezlana gai oso mamitsuak jorratzen ditu, baina lantaldekoek badute horiek lantzeko erreminta egokia: umorea, jolasen bitartez landutakoa. Renata, ordea, ez da emanaldian taula gainean egongo den pertsonaia bakarra. 30 pertsonaia gora egongo dira kontakizunean, lau aktoreen artean antzeztuak. Gainera, ez dira pertsonaia psikologikoak, fisikoak baizik, eta gorputza ere prestatu behar dute batetik bestera salto egiteko. Eta, dagoeneko, hogeitazietatik gora dituzte lotuta, urrirra arte.



Domekan itxiko da Eguen Zuri lehiaketarako epea

Arrate Kultur Elkartetik gogorarazi dutenez, domekan amaituko da XXVII. Eguen Zuri argazki-lehiaketarako lanak jasotzeko epea. Argazkietarako gaia, beti bezala, Aratosteak da, eta egile bakoitzeko hiru lan onartuko dituzte, gehienez. Irudiak JPG formatuan aurkeztu behar dira (6 Mega gehienez), domeka eguerdirako. Argazkiak zein egilearen datuak eguenzuri2025@gmail.com posta helbidean jasoko dira, eta epaimahaiak onenak sarituko ditu: argazki onenari, 160 euroko saria; bigarrenari, 100 euroko saria; eta hirugarrenari, 60 euroko saria.



Errealitatean oinarritutako drama zine-forum saiorako

Pagatxa elkartearen eskutik, zine-forum feminista saioa egingo da martxoaren 21ean (barixakua), Portaleko areto nagusian, 18:30ean hasita. Sarah Polley zuzendariaren *Ellas hablan* (*Women talking*) filma aukeratu dute proiektzio-solasaldirako. 2022an estreinatutako pelikula horretan Boliviako ekialdean isolatuta, menonitar kolonia batean, bizi diren emakumeen drama kontatzen da.



Esteban Orozen erakusketa Zarauzko Arkami galerian

Martxoaren 19an, eguaztenean zabalduko dute Esteban Orozen pintura garaikidearen erakusketa Zarautzen, Arkami arte galerian (Kale Nagusia, 32), 18:30ean. Estebanek haurra zenetik sentitu du artearekiko eta pinturarekiko interesa, eta arte galeriatik adierazi digutenez, “jardunaz ikasi duela esan daiteke, sortze prozesutik bertatik, artearekiko sentitzen duen gogobizia izan delarik bere motor nagusia. Bere pintura figuratiboa da, eta intuizioari jarraituz sortzen ditu artelanak. Ezinbestekoa iruditzen zaio bere koadro bakoitzean argia menderatzea, hau da, argi naturala interpretatzea eta islatzea”. Hainbat teknika lantzen ditu, tartean pastelak, akrilikoak, akuarelak eta olioak. Era berean, hainbat gai jorratu ditu bere ibilbidean zehar: paisaiak, erretratuak, itsasoko irudiak... Horietako batzuk ikusi ahalko dira erakusketan.

Josean Beloquik bere liburu berria aurkeztuko du Batzokian

Jose Antonio Beloqui Colomo iruñarrak Eibarren, Batzokian aurkeztuko du bere liburu berria, *Capitanes del Reino* izenburukoa, martxoaren 27an, 19:00etan. Beloqui topografoa eta Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikaria da. Horrez gain, Navarra TV eta Cadena Ser Navarra komunikabideetan kolaboratzen du, besteak beste, eta artikulu ugari argitaratu ditu. Historiarekiko duen interesak eraginda, idazle eta gidoilaria ere bada. 2018an, *Navarra, ¿Por qué no es un Estado?* entsegu argitaratu zuen, eta gaur egun Jaime Vélaz de Medrano kapitainari buruzko dokumental batean ari da lanean.





Txirrindularitzari eskainitako musika Coliseon

Eibarko Musika Bandak eta Eibarko Txirrindularien Elkarteak *Udaberriko kontzertua* prestatu dute domekarako, 12:30ean, Coliseo antzokian. Andoni Vazquez zuzendariak azaldu digu errepertorioa: “Lehen zatian *Alpina Fanfarrea* (alpetar doinuetan inspiratutako obra) eta bi polka eskainiko ditugu, *Chit-chat* eta *Ohne sorgen*, txirrindularitzarekin lotura duen musika eskainiz. Jarraitzeko, *Gigantes y Cabezudos* zarzuelako aukeraketa eta *Caballería ligera* obertura interpretatuko ditugu, eta Queen eta Genesis taldeen kantuak batzen dituen *Symphonic Rock* moldaketa-rekin amaituko dugu emanaldia”. Sarrera dohainik da, eta Kutxabank bitartez edo Coliseoko leihatilan erosi daiteke.



Aitor Oñederra zinegilearen lanen emanaldia Portalean

Aitor Oñederra animazio-zinegilea Eibarren egongo da eguaztenean, bere lanetako batzuk erakutsi eta, ondoren, solasaldia egiteko. Udal Euskaltegiaren 40. urteurrena ospatzeko antolatu dute emanaldia, eta irekia izango da, hurbildu nahi duen edonorentzat. Portaleko areto nagusian izango da, 10:00etan, eta hauek dira erakutsiko dituen lanak: *Dena eta ezer ez* (Gari 2014, 2’23”), *Izarren bila* (EH Sukarra 2016, 4’21”), *All I need is you* (Loopstache 2017, 4’37”) eta *Ur azpian lore* (2021, 13”). Aitor Oñederra Agirre zinegilea, EHUko irakaslea Arte Ederren graduan, animazio filmen egilea, eta Animadeba Nazioarteko Animazio Jaialdiaren zuzendaria da. Hainbat sari irabazi ditu.



‘Kutsidazu bidea, Ixabel’ liburuaren 49. edizioa kalean

100.000 aletik gora saldu dituen Joxean Sagastizabalen (Eibar, 1956) *Kutsidazu bidea, Ixabel* eleberriarren berrargitalpena aurkeztu dute aste honetan Donostian. Alberdaniak kaleratu berri duen liburuaren 49. edizioan bi berritasun daude: Jokin Mitxelena marraztutako azal berria, eta Inaxio Mujika Iraolak idatzitako hitzaurre berria ere

Bakarrizketa saioa Hatorren

Datorren eguenerako (martxoak 29) euskarazko bakarrizketa-saioa antolatu dute Hatorren, 19:30ean. Oraingo honetan Ander Maldabi eta Mirari Martiarena aha-leginduko dira publikoari barrea eragiten. Sarrerak 3 euro balio du, eta Buenos Aires eta Kalaka tabernetan erosi daiteke.



Judash-en kontzertua Guridin

Martxoaren 22an ari-tuko dira zuzenean Judash taldekoak, 21:00etatik aurrera Guridi tabernako terrazan.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

2	6					
7	9			4		
	5	1		6		7
9				8		2
1	2					8 6
		8		9		7
	3			1		6 5
			6			4 9
					7	3

C	Z	B	P	S	6	1	9
6	7	1	C	9	Z	8	5
8	5	9	Z	1	6	C	7
Z	1	6	7	8	9	C	5
9	8	6	C	Z	1	7	5
7	C	2	9	8	1	6	7
C	Z	7	6	9	C	1	8
1	9	8	7	5	C	6	7
C	6	C	1	7	9	8	7

soluzioa


ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		3		6		1	8
	8				5		
5			7				4
		1	8				
3			1	4			2
				9	5		
8				7			1
			2				3
	4	6		1	7		

**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

6	5	2	8	1	C	9	7	C
8	C	7	9	6	C	5	1	2
1	2	9	7	5	C	6	C	8
C	1	9	6	7	9	8	C	7
C	8	7	5	1	2	6	C	5
Z	7	6	C	2	9	1	5	9
7	C	1	8	2	9	9	1	5
9	2	5	C	6	7	8	1	2
C	8	1	2	9	9	1	5	9



LABIRINTOA ESKI GAINEAN

Martxoak 14-20

BARIXAKUA 14

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2 eta 8 urte bitartekoentzat jolasak, euskaraz, begiraleekin. Antolatzailea: ...eta kitto! Doan. Torreku.

HITZALDIA

17:00 Lapurreta eta iruzurren inguruan, Ertzaintzaren eskutik. Sarrera libre. Beheko Tokia nagusien zentroa.

HITZALDIA

18:00/20:00 "Mitologia klasikoa", Miguel Arroitajauregiaren eskutik. Doan. Ipuruako Merkatu Plaza.

ANTZERKI

JARDUNALDIK

19:00 "Hoy no estrenamos" (L'Om imprebis). 12 euro. Coliseo.

ZAPATUA 15

ZUHAITZ EGUNA

Pagaegikortara igotzeko elkargunek: **08:30** Klub Deportiboan, **10:00** Urkorako igoerarako aparkalekuan, Izuan. **10:00/13:00** Arbolen landaketa eta, ondoren, luntxa Izuako parkean (euria bada, Ikastolan).

LUZAKETA-TAILERRA

09:30 eta 10:30 Nuria Rodriguezen eskutik. Doan (aurretik izena emanda). Ipuruako Merkatu Plaza.

LORE AZOKA

10:00/14:30 XV. Lore, landare eta zuhaitz azoka: lore eta landare naturalak, kosmetika eta medikuntza naturaleko produktuak... eta haurrendako tailerrak. Urkizu (parkea).

KALEETAN KANTUZ

Abesbatzaren irteera.

ANTZERKI

JARDUNALDIK

17:00 "Moko, Indalecio Bizkarrondo 'Bilintx'" (Gorakada). Haurrentzat. 5 euro. Coliseo.

BISITA GIDATUA

17:00 "Emakumeak Eibarko industrian" (euskaraz). **18:30** Bisita, gazteleraz. Doan (aurretik izena eman). Armagintzaren Museoa.

TAILERRA

17:30 "Komunitatean bizi", Maushaus arkitektura laborategiaren eskutik. Ipuruako Merkatu Plaza.

BISITA GIDATUA

18:30 "Kokapena denbora errealean", Ane Xixi eta Viviane Straub artisten erakusketara. Portalea.

KONTZERTUA

20:00 'Mise en Abyme' eta 'Obego' taldeak. Guridi taberna.

DOMEKA 16

MUSIKA

12:30 XVI. Udaberriko kontzertua, Eibarko Musika Bandaren eskutik. Txirindulari musika. Coliseo.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gunere irekia, HH-koentzat (2-5 urte). Ipuruako kiroldegia.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Ipuruako kiroldegia.

MARTITZENA 18

HITZALDIA

18:00 "Onekaren sorrera eta bilakaera", Oneka Emakume Pentsionisten Plataformaren eskutik. Antolatzailea: Martxoaren 8ko lantaldea. Sarrera libre. Andretxea.

MENDITOUR

18:30 "Connecting 3 cime" (Marcial Sommer, 7 min.), "Modo avión" (Iciar Casamitjana, 15 min.), "Always alive" (Davina Montaz-Rosset, 35 min.) eta "Of a lifetime" (Jerome Tanon, 44 min.). Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa. Coliseo.

EGUAZTENA 19

MENDI-IBILIAK

09:30 La Antigua-Beloki-Zumarraga. Antolatzailea: Ikasten. Ego-Gain (autobus).

ZINE-EMANALDIA

10:00 Aitor Oñederra animazio-zinemagilearen emanaldia eta solasaldia: "Dena eta ezer ez" (Gari 2014, 2'23"), "Izarren bila" (EH Sukarra 2016, 4'21"), "All I need is you" (Loops-tache 2017, 4'37") eta "Ur azpian lore" (2021, 13"). Udal Euskaltegiaren 40. urteurrena ospatzeko. Sarrera libre. Portalea.

BATZARRA

18:00 ...eta kitto!-ren ez-ohiko batzarra, Estatuetako aldatetako onartzeko (bigarren deialdia **18:30**ean). **18:45** Urteko Batzar Orokorra (bigarren deialdia **19:15**ean). ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokala (Urkizu, 11 solairuartea).

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondatei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea.

MENDITOUR

18:30 "The redo rock revolution" (Jim Aikman, 8 min.), "Jamie" (Darcy Hennessey, 18 min.), "The icebuilders" (Francesco Clerici, Tomasso Barbaro, 15 min.) eta "Hiru haundiak. Taupadak eta gailurrak" (Ander Salsamendi, 54 min.). Antolatzailea: Klub Deportiboa. Coliseo.

EGUENA 20

HITZALDIA

10:00/12:00 "Cine soviético de agitación y propaganda 1917-1945", Juan Madariaga. Antolatzailea: Ikasten. Sarrera libre. Armeria Eskola.

HITZALDIA

17:00 "Convivir con el Alzheimer", AFAGI-ren eskutik. Sarrera libre. Beheko Tokia.

TAILERRA

18:30/20:00 Clown jarduerak, helduentzat. Doan. Ipuruako merkatu plaza.

BAKARRIZKETA

19:00 "Gregoria", Beatriz Egizabal Ollokiegiren eskutik. Antolatzailea: Martxoaren 8ko lantaldea. Topaleku.

BAKARRIZKETA

19:30 Ander Maldabi eta Mirari Martiarena. Euskaraz. 3 euro (sarrerak Buenos Aires eta Kalaka tabernetan salgai). Hator.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **15an:** 19:45
- **16an:** 20:00
- **17an:** 19:30

“The Brutalist”
DRAMA



2024/AEB/215'
Zuzendaria: Brady Corbet
Aktoreak: Adrien Brody,
Felicity Jones, Guy Pearce
Inmigrazioa/Arkitektura

2 ARETOA

- **15an:** 19:30, 22:30
- **16an:** 17:00, 20:00
- **17an:** 19:30

“A complete unknown”
DRAMA



2024/AEB/141'
Zuzendaria: James Mangold
Aktoreak: Timothée Chalamet,
Edward Norton, Elle Fanning
Biografikoa/Musika/60. urteak

ANTZOKIA

- **15an:** 17:00 (1 Aretoa), 22:30
- **16an:** 17:00, 20:00
- **17an:** 19:30

“Mickey17”
FIKZIOA



2025/AEB/137'
Zuzendaria: Bong Joon-ho
Aktoreak: Robert Pattinson,
Naomi Ackie, Steven Yeun
Zientzia-fikzioa/Extralurtarrak

ANTZOKIA

- **15an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **16an:** 17:00

“Mary Superchef”
ANIMAZIOA



2023/Luxenburgo/85'
Zuzendaria: Enzo D'Alò
Abenturak/Sukaldea/Drama



<p>FUNEUSKADI Grupo Anatas</p>	<p>FUNERARIA MUGICA Funeraskadi</p>
<p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

Urkizu, 11 - solairuartera
publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **PEIO!**
Bixar urtetxua egingo dozulako! Etxeko borrokalaria onenarentzat, maitte zaittuen famelixaren partez.



Zorionak, **MARTIN,**
hillaren 18xan 10 urte beteko dozuz eta! Besarkada erraldoia famelixakuen partez.



Zorionak, **ELENE,**
bixar 11 urte beteko dozuz eta. Segi beti bezain alai eta irrifartsu. Musu erraldoi bat etxekuen partez.



Zorionak, **MARCO!**
Hurrengo martitzenian 8 urte beteko dozuz eta! Musu haundi bat etxeko guztien partez!



Zorionak, **IBAN.**
Hillaren 11n 10 urte bete zenduaz eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **VEGA,**
hillaren 17xan urtetxua beteko dozu eta. Maite zaittugun etxekuen eta, batez be, Mateoren partez.



Zorionak, **IRATI!!!**
Atzo 18 urte bete zenduaz eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **NILE,**
hillaren 11n 5 urte bete zenduaz eta! Jarraitu gure bizitza alaitzen! Asko maite zaittugu, Nahiak batez be!



Mari Joxepa Larrañaga Iparragirre

1. URTEURRENA
2024/03/16

“Beti gure bihotzean”
- ETXEKUEK -

HAREN ALDEKO URTEURREN MEZA egingo da hilaren 16an (domeka), 11:00etan, Amañako El Salvador elizan.





Walter Tuzzeo

1. URTEURRENA
2024/03/18

“Infinito maite zaitugu. Ti amiamo infinito”

- ZURE FAMILIA -

Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Logela bat hartuko nuke Eibarren edo inguruan. Gehienez 320 euro ordaintzeko. 627122105.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Abontzan. 625071888 eta 626528738.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da arratsaldean (13:00etatik aurrera) pegorak garbitzeko eta umeak zaintzeko. 620757528. Arrate.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 688691739.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 686520473.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko. 602800266.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin), baita ospitalean ere, eta etxea garbitzeko. Esperientzia. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 637990403.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 604249891.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 633365036.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 639107272.
- Mutila eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Orduka. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 612284265.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631354479.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 624978151.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez edo ospitalean ere) eta etxeak edo obrak garbitzeko. 638421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarak egiteko eta jatetxeetan jarduteko. 631805746.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 603458623.
- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko (arreta sozio-sanitario ziurtagiria). 624828670.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, jatetxean jarduteko eta garbiketarak egiteko. 604205271.

4.2. Langile bila

- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika baterako. Jardun partziala, adostu beharrekoa. Bidali CV: hortz-klinika.4@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Organo elektronikoa salgai. Antonelli markakoa. Doinuen akonpainamenduarekin: vals, tango... Prezioa adosteko. 943752480.

ATE IREKIAK

MARTXOAK 19 | 🕒 17:00



Otaola Hiribidea, 29
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11
idazkaritza@uni.eus
www.uni.eus
@uni.eus



* IKASTETXE PUBLIKO DOAKOIA



IZENA EMAN

🕒 943 89 92 11
www.uni.eus



MERKATARITZA



JARDUERA
FISIKOAK ETA
KIROLAK



ADMINISTRAZIOA
ETA
KUDEAKETA



INFORMATIKA
ETA
KOMUNIKAZIOAK

IMH LANBIDE
HEZIKETA
FORMACION
PROFESIONAL

Eman izena!

**Ate
irekiak**
MARTXOAK 22



ERDI MAILA

- Mekanizazioa
- Mantentze-lan Elektromekanikoa

GOI MAILA

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

ESPEZIALIZAZIOAK

- Fabrikazio Aditiboa
- Errendimendu handiko mekanizazioa
- Makinen doitze eta prestakuntza aurreratua
- Elkarlaneko Robotika (eskatuta)

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA (eskatuta)

- Automatizazio Industrialen Muntaketa eta Mantentzea

www.imh.eus | 943 74 82 65 | zikloak@imh.eus

**HEZIKETA
ZIKLOAK**

ETORKIZUNAREN FABRIKATZAILEAK

Kia-ren SUV gama.

Baldintza bereziak martxoaren 24ra arte.



Movement that inspires

15.100 €*⁻tik aurrera
Finantzatuta

Bizitzak buelta asko ematen ditu. Eta Kia-ren SUV gama bakoitzari egokitzen zaio. Aukeratu zurekin ondoen egokitzen den SUV-a, eta eraman ezazu baldintza bereziekin martxoaren 24ra arte, 15.100 €*⁻tik aurrera finantzatuta. Bizitzak eramaten zaituen lekuan, Kia-k beti biratzen du zurekin.



📍 Apalategi, 1 EIBAR

☎️ 943 70 70 33 📞

gruponaiacar.com

WLTP isurketa konbinatuak (g/km): 100-159. WLTP kontsumo konbinatua (l/100 km): 4,4-7. PHEV: WLTP CO₂ isuri konbinatu ponderatuak (g/km): 18-28. WLTP kontsumo konbinatu ponderatu zenbatetsia (l/100km): 0,8-1,2. EV: WLTP CO₂ isuriak (g/km): 0. WLTP kontsumo konbinatua (kWh/100 km): 16,2. *GSPP Kia Stonic 1.2 DPE Concept (zergak, garraioa eta sustapen-ekintzak barne). Ez dira sartzen gestoriako eta matrikulazioko gastuak. Bezero partikularrei aplika dakiekeen eskaintza, baldin eta Kia ibilgailu erabilia entregatzen badute eta Banco Cetelem S.A.U.-rekin Flexiplan kanpainaren bidez finantzatzen badute. Gutxieneko zenbatekoa 10.000 €-koa izango da, 36 hilabeteko gutxieneko epera eta gutxienez 36 hilabeteko permanentziarekin. Eskaintza hau ez da bateragarria beste finantza eskaintza batzuekin, eta 2025/03/10etik 2025/03/24ra arte balio du. Kontsultatu baldintzak kia.com webgunean.

